


tzak iruruan daramagun zatiketaren ikur.  
Berlingo harresia Europako historiaren, gure historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidean sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarria inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta aurrerakuntza, askatasuna...



di Europaren zoria horixe dela: ilusiozko etorkizuna omazetan murgildurik erditu beharra.

zatuaren ikur, Europa zatuaren ikur, gizadi zatuaren ikur, eta, zergatik ez, gutako bakoitzak baruan daramagun zatiketaren ikur.

Berlingo harresia Europako historiaren, gure historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidean sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarria inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia gogotsia, astakeria eta infernu beltz...


Berlingo harresiak 25 urte eta gure Europako historiak 2.500. Behin eta berriz zatiketak, borrokak, zapalkuntzak, gudateak, odol-ixurtzeak. Eta guzti honekin batera etorkizun hobeto baten itxaropena eta ilusioa, bai batirudi Europaren zoria horixe dela: ilusiozko etorkizuna omazetan murgildurik erditu beharra.

zia bateg bideratu nahi baldin badugu.

Alde honetatik, hai mundu eta hai Europa mailan, eta baita gizabanako bakoitzaren mailan ere, nekez horma batek izan dezake Berlingoak bezainbat garrantzi nazioarteko politikaren aldakuntzan.

Honegatik, Berlingo horma apurtzen den egunean, harreman europarrak etapa berri batean sartuko dira eta orain arteko amets guztiak honetatik irtenaio.

Ez dira falta, noski, gaur eguneko gihar arrotzak zaizkion beldurrak aitzakilat hartuz, europarren zatiketaren fikzioa iramierazi nahi dutenak, alemaniarren erdibitzea eta Berlingo hormari eutsiz.



Alde honetatik, hai mundu eta hai Europa mailan eta baita gizabanako bakoitzaren mailan ere, nekez horma batek izan dezake Berlingoak bezainbat garrantzi nazioarteko politikaren aldakuntzan.

Honegatik, Berlingo horma apurtzen den egunean, harreman europarrak etapa berri batean sartuko dira eta orain arteko amets guztiak honetatik irtenaio. pazaleen ametsa egia bihurtzeko urratuz.

Ez dira falta, noski, gaur eguneko gihar arrotzak zaizkion beldurrak aitzakilat hartuz, europarren zatiketaren fikzioa iramierazi nahi dutenak, alemaniarren erdibitzea eta Berlingo hormari eutsiz.

**D**EIA egunkariak EGUNA izeneko astekaria argitaratzeari ekin zion 1986an. "Katea ez da eten" lelopean, astekari hura jaio zen 1937ko EGUNA egunkariaren gomutaz eta egituratu, berriz, 1980ko hamarkadaren hondarrean sortu behar omen zen euskarazko egunkari berriaren prototipotzat.

Laburbilduz, bost ziren, besteak beste, kazeta-egitasmoko haren helburu eta zutabe nagusiak. Alegia:

- Hizkuntzaz, euskara hutsez eta ez elebiduna.
- Funtsez, alternatiboa. Erdarazko egunkariaren lehia zuzenean sartuko ez zena eta sortze beretik aukera osagarritzat burutua.
- Eraz eta moldez, ahalik eta erakargarriena.

- Irakurlez, gogoan izanda euskal erosle arruntaren profila.
- Mailaz, euskara ikasten ari zirentzako material aproposa sortaraziko zuena.

## EUSKARA HUTSEZ, EZ ELEBIDUNA

Behar bada, orduan berriztat aldarrikatu genuen formulak ez luke egun eztabaida handirik sortaraziko baina, garai hartan, urraspide zeharo garrantzitsua izan zen. Kontuan hartu, DEIA eta EGIN egunkariaren eskarmentuetatik gentozela eta batak zein besteak ondotox frogatua zutela, ordurako, esperientzia elebidunek nekez izan zezaketela etorkizun oporrik euskararen ikuspegitik edo, zehatz

Berlingo harresia Europako historiaren, gure historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidearen sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarri inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia erokeria, astakeria eta infernu beltzalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidearen sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarri inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia erokeria, astakeria eta infernu beltz bihurtzen jakin duen historiarena.

## LUIS ALBERTO ARANBERRI "AMATIÑO"

KAZETARIA

Berlingo harresia Europako historiaren, gure historiaren ondorio baita, Bach, Hegel, Picasso, Moore, Einstein, Txillida edo Sartre bezalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidearen sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarri inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia erokeria, astakeria eta infernu beltzalaxe. Itxaropena eta ilusioa, aurrerabidearen sinesmena, askatasun gosea eta justizia egarri inon ez bezala bizi izan diren Europako historiaren ondorio, baina baita ere guzti hori, itxaropena eta ilusioa, aurrerakuntza, askatasuna eta justizia erokeria, astakeria eta infernu beltz bihurtzen jakin duen historiarena.

Berlingo harresiak 25 urte eta gure Europa ko historiak 2.500. Behin eta berriz zatiketarik horroak, zapalkuntzak, gudateak, odol-ixurtzeak. Eta guzti honekin batera etorkizun haheago baten itxaropena eta ilusioa, bai batirudi Europaren zoria horixe dela: ilusiozko etorkizuna oinazetan murgildurik erditu beharra

esanda, beti ere euskararen kaltetan. Eta ez, soilik, albiste-kopuruaren aldetik, ezta albiste-mailaren aldetik ere.

DEIAk zein EGINek hamar urte zeramatzaten ordurako merkatuan, eta bistakoa zen, bakoitzak bere neurrian, ez bata eta ez besteak ez ziotela inondik ere eusten hasieran euren buruari jarri zioten hizkuntzabanaketa.

Hamar urteko jarduerak ondo asko erakutsi zuen egunkari elebidunek eskaini zezaketen euskarakopuruak nekez ase zezakeela euskal irakurle potentzialaren eskabidea eta, aldi berean, euskal irakurlea ase lezakeen bestekoa irentsi ezina serratzen zitzaioela erdal erosleari.

Beste horrenbeste albisteen garrantziaren maila erabakitzerakoan. Merkatu-legearen arabera, zenbat eta berri nabarmenagoa izan, are

murritzagoa bilakatu zen euskaraz azaltzeko aukera, eta, urteak joan eta urteak etorri, azkenean euskaraz eskainitako albisteak izaten ziren, gaztelaniaz ez eman arren erdal irakurleek faltan botako ez zituztenak.

## ALTERNATIBOA. ERDARAZKO EGUNKARIEN LEHIA ZUZENEAN SARTUKO EZ ZENA

Hain zuzen ere, euskarazko egunkari batek merkatuko beste edozein egunkariren pareko izan beharko zukeela uste zutenen iritziazen kontra, EGUNA egunkari alternatibotzat proposatu genuen. Hau da, asmoa ez zen euskal irakurleari euskarazko edo gaztelaniazko egunkarien artean bietako bat erabakiaraztea, biak erosteko arrazoiak ematea baizik. Segururik ez zen gure aldetik estrategiarik anbiziotsuena, baina bai, behar bada, errealistena.

Guk ez genuen planteatu EGUNA lehen egunkari gisa, bigarren aukera modura baino. Beti ere ahaztu gabe, bigarren bat erosteko ere arrazoi franko behar dela. Horretara, ahalegindu ginen merkatuan ez zegoen produktua moldatzen. Funtsean, geure buruari egiten genion galdera zera zen: zer eskaini diezaiokegu gaztelaniazko egunkaria ez erosteko erabakia nekez hartuko duen irakurleari eta, aldi berean, euskarazko aukeraren alde egiteko ere gertu dagokeenari?

## ERAZ ETA MOLDEZ, AHALIK ETA ERAKARGARRIENA

Zentzu honetan ahalegindu ginen ahalik eta diagramaziorik modernoena moldatzen, aldizkari gisako formatoa, arin samarra, kolorez, edozenbat argazkiz osatua eta abar. Gaur egun edozein egunkarik



dituen dohainak, besteak beste, baina orduan beste ezeinek ez zituenak. Alde honetatik, EGUNA zen 1986an, itxuraren aldetik behintzat, kioskoan aurkitu zitekeen formatorik berriena.

Itxuraz ez ezik, mamiz ere, iritzi-sailak baliotsua zen, ez bakarrik handik eta hemendik hainbat iritzi-emaileraren esku hartzea lortu genuelako, baita puntua ezarri eta hainbat artikulugileren irizpideak kontrajarri ere. Esaterako, lehen alean, Berlingo harresiak 25 urte bete zituelarik, Emiliano López Atxurra, Martin Ugalde eta Joseba Arregi iritzi-emaielen hausnarketak bildu ziren. Labur bildu ere, orain ohikoak diren neurrietan, baina orduan edonork laburregitzat jotzeko modukoetan.

Sailak, berriz, Aberria, Atzerria, Ekonomia, Kirolak eta gainerako normalak baztertu gabe, euskal irakurleak gogoko har zitzakeenak eta erdal egunkarietan inondik ere aurkituko ez zituenak. Esaterako, euskal telebistaz, irratiaz, zineaz, antzerkiaz, literaturaz, argitalpenez... Eta, sailez sail, benetan luxozko kritikoen idazlanez osatua; hau da, Jon Kortazar (literaturaz), Jose Antonio Zubikarai (musikaz), Begoña del Teso (zineaz), Edorta Kortadi (arteaz), Koldo San Sebastian (gizarteaz) eta José Luis Arriaga (nazioarteaz) tarteko.

Aipagarri ere bestelako sailak, gainerako egunkarietan inondik ere normalak ez zirenak. Adibidez, azterketa grafologikoak eta "Azukre ton-torra" (onerako) zein "Asto gorotza" (txarrerako) kritika-eremuak. Berriberria ere, ausart samarra, "Txiste orlegiak" zeritzana.

**EGUNA ZEN 1986AN,  
ITXURAREN ALDETIK  
BEHINTZAT, KIOSKOAN  
AURKITU ZITEKEEN  
FORMATORIK BERRIENA  
ITXURAZ EZ EZIK, MAMIZ  
ERE**

## **IRAKURLEZ, EUSKAL EROSLE ARRUNTAREN PROFILA GOGOAN IZANDA**

Auskalo asmatu ote genuen edo ez, baina aitortu dezadan ez ginela inondik ere joan betidanikako euskal irakurlearen bila, ordu arte euskal aldizkaririk erosteko batere ohiturarik ez zukeenaren arrantzan baizik.

Eta ahalegindu ginen, hasiera beretik, idazleen arrobia alde batera uzten eta erredakzio-taldea lanbidez kazetariak zirenekin osatzen. Gogoan izan ditzadan, aurretik aipatutako Jose Antonio Zubikarai gainera, Mikel Atxaga, Joseba Etxarri, Nikolas Aldai, Txemi Galarraga, Ana Sofia Eskisabel, Xipri Arbelbide, Maite Arrese, Iñaki Olano eta Xabier Arguello, *EGUNA*ren inguruan hasi aurretik kazetari zirenak eta geroztik ere, eten gabe, kazetari lanetan, ofizioaren jabe, jarraitu zutenak eta, bizi diren heinean, darraitenak.

Imanol Unzurrunzaga zuzentzailearen ardurapean, denok ere ahalegindu ginen ahalik eta kazeta-hizkuntzarik petoena lantzen, argi, zorrotz, motz, zuzen eta jator. Jakitun ginen, jabetu ginen, gure irakurlea ez zela aldeztu aurretik askorik aritua, eta hura ez aspertzen saiatu ginen.

## **EUSKARA IKASTEN ZIHARDUTENENTZAKOA**

Azkenik, gau-eskoletan eta euskaltegietan euskara ikasten ari zirenak ere gogoan izan zituen *EGUNA*ak. Berrogei orrialdetik lau, "Oinarritzko mailan euskalduntzen" delako izenburupean argitaratu ziren, aiez ale. Bai informazio-testu aproposak mailakatzen, bai horoskopoa edo heraldika bezalako eremu laburrak egokitzen, eta baita hitz-jokoak bideratzeko formulak eskaintzen ere, hitz gurutzatuak, letra-zopak, jeroglifikoak eta abar, esaterako.